



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BANDOA **ZABORRAK**

Herritar guztioi janarazten dizuet, 2014ko azaroan Tolosaldeko herri guztietan hondakin errefusaren karakterizazioa egin zela, hau da, hondakin errefusak duten kontenedoreak hustu eta bertan dagoen zaborra aztertu egin zela. Hondakin errefusak % 30a bakarrik aurkitu zen, beste guztia hondakin organikoak, papera, ontzi arinak... zirelarik. Larraulgo datuak Tolosaldea guztiko daturik okerrenak izan zirelarik.

Tolosaldeko Mankomunitateko teknikariak proposaturik, eta emaitzak hobetzeko asmoarekin, kontenedore berdeen erabilpen sistema aldatzea onestu zuen 2015eko martxoaren 5ean egindako Udalbatzarrak. Onarturiko sistema berria ondorengoa izango da:

Giltzapeturik egongo diren kontenedore txiki batzuk jartzea, bertan hondakin errefusak botako direlarik. Kontenedore hauen erabilpena 8-10 familiak izango dute. Famili bakoitzari dagokion kontenedore txikiko giltza emango zaio, bertan hondakin errefusak botako dituelarik.

Kontenedore berdea giltzapetuta egongo da, beraz, bertara ezingo da ezer bota. Herri langileak, kontenedore txikiak kontenedore berdera hustuko ditu. Mankomunitateak kontenedore berdea hustuko duelarik, orain arte bezala. Aldaketa bakarra, kontenedore berde bat bakarrik uztea izango da. **Sistema honen ezarpena aste santuaren ondoren egingo da.**

Aipaturiko neurri honekin, hondakinen erreziklapena ondo egitea da, ingurugiroa zainduz eta zaborraren kudeaketaren kostua murriztuz. Herritar guztion onurarako izango da.

Honekin batera aipatu, konpostagailuen ezarketaren jarraipena ondorengo egunetan egingo dela. Mankomunitateko teknikaria zuekin harremanetan jarriko delarik.

Larraulen, 2015eko martxoaren 24ean

ALKATEA